

Helburu didaktikoak	Ebaluazio adierazleak
1. Instituzioekiko harremanetarako landutako hizkuntzaren ezaugarriak zuzen aplikatu, ezagututako eta emandako testuetan nahiz norberak sortutakoetan.	<p>1.1. Erakundeekin harremanetan jartzeko hasierako eta amaierako agurrak egoki sailkatu eta zuzen idazten ditu (dagozkien puntuazio-ikurrak gehituz).</p> <p>1.2. Laburtzapenak motaren arabera bereizi eta zuzen idazteko arauekin erlazionatzen ditu.</p> <p>1.3. Data, helbide eta orduak zuzen idatzi eta deklinatzen ditu.</p>
2. Hitzen esanahia deduzitu, ageri direnoko testuinguru semantikoa eta euren jatorria nahiz osaketa kontuan hartuz, eta norberaren testuetan erabili.	<p>2.1. Hitz-elkartuak, eratorriak eta maileguak bereizten ditu. Kategoria gramatikalak bereizten ditu eta horren arabera analisia egiteko gai da.</p> <p>2.2. Testuan nabarmendutako hitz elkartu, mailegu edo hitz eratorrien esanahia ondorioztatu eta definizioa egoki idazten du.</p>
3. Instituzioekiko harremanetan, komunikazio-asmo jakin bati erantzuteko egokiena den testu-generoa hautatuz, testu-genero horri dagokion egitura-osagai bakoitzaren funtzioaren arabera edukia sortu eta antolatu.	<p>3.1. Hizkuntza-funtzio bakoitzerako testu-mota egokia idazten du. (gonbidapenak, eskaerak, erreklamazioak...)</p> <p>3.2. Testuak dagozkien egiturak erabiliz osatzen ditu, beti ere helburua kontuan izanik.</p> <p>3.3. Emaniko testuen komunikazio-asmoa idatzi eta egoki justifikatzen du, testuko adibideak baliatuz.</p>
4. Emandako ideien artean dagoen erlazio semantikoa identifikatu eta erlazio logikoa adierazteko landutako baliabide anitzak (hitzezkoak eta hitzezkoak ez direnak) aplikatuz, erlazio hori duten ideiak hainbat modutara adierazi.	<p>4.1. Erreklamazio-orri baten, gonbidapen baten eta eskabide-gutun baten egiturako osagaiak identifikatu eta egoki antolatu, ordenatzen ditu.</p> <p>4.2. Elkarren artean kausa-ondorio erlazioa duten informazioak identifikatu eta hizkuntza-baliabide egokiak erabiliz josten ditu, paragrafo bat osatuz.</p> <p>4.3. Kausa-ondoriozkoa ez den testu-antolatzaile batez adierazi arren, oinarrian kausalitate erlazioa duten informazioak identifikatzen ditu.</p> <p>4.4. Informazioak testu-antolatzaileekin jostean puntuazio ikurrak zuzen idazten ditu.</p>
5. Iturri digitaletan helburu jakinen zein norberaren beharren aurreikuspenekiko garrantzitsua den informazioa hautatu, antolatu eta erregistratu.	<p>5.1. Iturri digitalak identifikatu eta baloratzen du egokitasunaren eta fidagarritasunaren baita.</p> <p>5.2. Informazioa hautatzen du, norberaren beharren aurreikuspenaren arabera.</p> <p>5.3. Informazioa antolatu eta erregistratzen du, finkatutako irizpideen arabera.</p>
6. Geroz eta autonomia handiagoa erakutsi norbere ikaskuntza-prozesuaren autorregulazioan, ikasitako eta egindakoaren kontzientzia hartuz eta hobekuntzarako erabakiak hartuz.	<p>6.1. Unean uneko ikaskuntzen jabeak buruzko hausnarketa egin eta erabakiak hartzen ditu.</p> <p>6.2. Finkatutako irizpideekiko berrikusketa partekatuan, baloratzen du bere lan egiteko modua, bere lanaren emaitza, kidearen lan egiteko modua, eta emaitza eta erabakiak hartzen ditu.</p> <p>6.3. Bere nahi, behar, premia, aurreikuspenekiko hausnarketa egin, eta erabakiak hartzen ditu.</p>
7. Irakurzaletasuna sustatzeko hainbat eleberri eskaini eta elkarreraginean arituz tertulia literarioa gauzatu.	<p>7.1. Ikasleek, proposatutako liburuaren artean bat hautatu eta tertulia literarioa gauzatzeko taldea osatzen dute. Tertulia literarioa gauzatzen dute.</p> <p>7.2. Ikasleak haututako liburu horren harira, ohar kritikoa egiteko aukera izango du.</p>
8. Zuzentasun gramatikala eta ortografikoa aplikatzen ditu ahozko nahiz idatzizko ekoizpenean.	<p>8.1. Ahoz nahiz idatziz ekoizten dituen testuak gramatikalki zuzenak dira.</p> <p>8.2. Idatzizko testuetan ortografiari erreparatzen dio eta zuzenketak bideratzen ditu.</p>